

AURKEZPENA

Pozbide handia da Eusko Ikaskuntzako Musika Sailarentzat *Musiker. Cuadernos de Música* aldizkariaren 15. zenbakia aurkeztea. Bertan omenaldia egiten zaio Jose Antonio Arana Martijari (Gernika, 1931), pertsona saiatuenetako bat euskal musikaren azterketa eta zabalkundearen alorrean XX. mendearen bigarren erdian.

Musiker. Cuadernos de Música aldizkariak bere 24 urteko ibilbidean euskal musiko enblematiko batzuk omendu ditu, hala nola Aita Donostia, Enrique Jordá eta Jose Luis Ansorena, 3., 9. eta 13. aleetan, 1986, 1997 eta 2002an, hurrenez hurren. Oraingo ale honen bidez ageriki aitortu nahi dio Jose Antonio Arana Martijari euskal kulturari egindako ekarpena, bai eta horren biografia eta obra euskal gizarteari ezagutzera ematea ere.

Jose Antonio Arana Martija, beste lan askoren artean, *Música vasca* (1976) liburu enblematikoaren egilea da, Eusko Ikaskuntzako Musika Saileko lehendakaria izan da, baita sail horretako bazkide aktiboa eta *Musiker: Cuadernos de Música* aldizkariako kolaboratzaile aspergaitza ere, bertan hainbat artikulua argitaratu dituela: “Problemas de la música vasca”, “Basterretxearen Passioa kantatzeko erabili diren doinuak”, “Euskal musikuak Ameriketara”, “Musitaren argitaratzea Euskal Herrian” eta “Introducción: la obra de José Luis Ansorena”.

Oraingo ale honetan hainbat alorretako autorek parte hartu dute. Batzuek omenduaren inguruko berariazko lanak ekarri dituzte. Hori da ondoko artikuluen kasua: “Algunos apuntes biográficos, activados con recuerdos personales”, Antton Zubikarairena; “Carta”, Agustín González Acilurena; “Carta a modo de homenaje”, berriki zendu den Jose Maria Zapiarinena; “Jose Antonio Arana Martija eta Euskal Idazleen Elkarte”, Josemari Velez de Mendizabalena; “Menú con música”, Patxi Orozeta; eta Euskaltzaindiko Azkue Liburutegia erakundeetako kideek, Arana Martija hainbat urtetan erakunde horretako arduraduna izana da, eta Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboak prestatu duten Jose Antonio Arana Martijaren idazki, musika obren eta diskografiaren katalogoa.

Ale honek, orobat, Resurreccion Maria de Azkueri buruzko bi artikulua dauzka, gure omenduak pertsonaia horren obra ikertzeari, iturriak biltzeari eta zabaltzeari ahalegin nabarmena eskaini baitio: “Resurrección María de Azkueren Musika Artxiboa”, Euskaltzaindiko Azkue Liburutegiko zenbait kideek egina, eta “Fuentes privadas para el estudio de la música: el epistolario

de Resurrección María de Azkue (I)”, Carmen Rodríguez Susorena. Orobat, Carlos Sánchez Ekizaren “Sobre Iparaguirre y el Gernikako arbola” izenburuko lana dakar, Jose Antonio Arana Martijaren testuetan oinarritua, beste zenbait iturriren artean.

Omenaldi honetan, era berean, beste hainbat pertsonak esku hartu dute euskal musikari buruzko idazki askotarikoak onduz, hala nola Klaus Niebel, Jose Luis Ansorena, Joanito Dorransoro, Imanol Olaizola, Isabel Díaz Morlán eta Esteban Elizondo. Orobat, Jon Bagües, Beatriz Balerdi, Peio Leñena eta Jaione Landaberea, Musikaren Euskal Artxibokoek musika dokumentazioari Arana Martijak egindako ekarpen eskerga azpimarratu nahi izan dute ondoko lanen bidez: “Fondos musicales en bibliotecas y archivos de Euskalerría”, “Bibliografía de investigación musical en Euskalerría: Tesis Doctorales”, “Guía de editoriales musicales en Euskalerría” eta “Guía de casas y sellos discográficos en Euskalerría”, hurrenez hurren.

Lan horiek guztiak hainbat autorek Jose Antonio Arana Martijari egindako eskaintzak dira. Musika Sailak omenaldian parte hartu izana eskertzen die horiei guztxi. Era berean, eskerrak ematen dizkio Jon Bagüesi, haren ardurapean izan baita artikuluak biltzea eta ale honen argitalpena koordinatzea.

Itziar Larrinaga
Musika Saileko Lehendakaria

PRESENTACIÓN

Es una gran satisfacción para la Sección de Música de Eusko Ikaskuntza presentar el número 15 de la revista *Musiker. Cuadernos de Música*, que rinde homenaje a José Antonio Arana Martija (Gernika, 1931), una de las figuras más activas en el estudio y la difusión de la música vasca a lo largo de la segunda mitad del siglo XX.

Musiker. Cuadernos de Música ha homenajeado a lo largo de sus 24 años de andadura a músicos vascos emblemáticos como José Antonio de Donostia, Enrique Jordá y José Luis Ansorena, en los números 3, 9 y 13, de 1986, 1997 y 2002, respectivamente. Con el presente volumen pretende reconocer públicamente la contribución de José Antonio Arana Martija a la cultura vasca, así como dar a conocer su biografía y su obra a la sociedad vasca.

Autor, entre otros muchos trabajos, del emblemático libro *Música vasca* (1976), José Antonio Arana Martija ha sido presidente de la Sección de Música de Eusko Ikaskuntza, socio activo de la misma y colaborador incansable de *Musiker: Cuadernos de Música*, donde ha publicado los artículos: “Problemas de la música vasca”, “Basterretxearen Passioa kantatzeko erabili diren doinuak”, “Euskal musikuak Ameriketara”, “Musikaren argitaratzea Euskal Herrian” e “Introducción: la obra de José Luis Ansorena”.

En la elaboración de este nuevo número han participado autores de diversos ámbitos. Unos han realizado contribuciones específicas en torno a la figura del homenajeado: es el caso de los artículos “Algunos apuntes biográficos, activados con recuerdos personales”, de Antton Zubikarai; “Carta”, de Agustín González Acilu; “Carta a modo de homenaje”, del recientemente fallecido José María Zapiarin; “Jose Antonio Arana Martija eta Euskal Idazleen Elkarte”, de Josemari Vélez de Mendizábal; “Menú con música”, de Patxi Oroz; y del catálogo de escritos, y de obras musicales y discografía de José Antonio Arana Martija que han preparado miembros de la Biblioteca Azkue de Euskaltzaindia, entidad de la que Arana Martija fue responsable durante tantos años, y de Eresbil-Archivo Vasco de la Música.

El presente volumen contiene también dos artículos sobre la figura de Resurrección María de Azkue, a cuyo estudio, recopilación de fuentes y difusión ha dedicado un notable esfuerzo el dedicatario de este número: “Resurrección María Azkueren Musika Artxiboa”, escrito por miembros de la Biblioteca Azkue de Euskaltzaindia, y “Fuentes privadas para el estudio de la música: el epistolario de Resurrección María de Azkue (1)”, de Carmen

Rodríguez Suso. Asimismo, incluye el trabajo “Sobre Iparaguirre y el Gernikako arbola” de Carlos Sánchez Ekiza, basado en textos de José Antonio Arana Martija, entre otras fuentes.

En este homenaje han participado también otras personas con escritos diversos sobre música vasca: tales como Klaus Niebel, José Luis Ansorena, Joanito Dorronsororo, Imanol Olaizola, Isabel Díaz Morlán y Esteban Elizondo. Asimismo, Jon Bagües, Beatriz Balerdi, Peio Leiñena y Jaione Landaberea, de Eresbil-Archivo Vasco de la Música, han querido subrayar la inestimable aportación de Arana Martija a la documentación musical en Euskal Herria con los trabajos “Fondos musicales en bibliotecas y archivos de Euskal Herria”, “Bibliografía de investigación musical en Euskal Herria: Tesis Doctorales”, “Guía de editoriales musicales en Euskal Herria” y “Guía de casas y sellos discográficos en Euskal Herria”, respectivamente.

Todos estos trabajos son ofrendas que los diversos autores realizan a José Antonio Arana Martija. La Sección de Música agradece a todos ellos su implicación en el homenaje. También da las gracias a Jon Bagües, que ha sido el encargado de compilar los artículos y coordinar la edición de este volumen.

Itziar Larrinaga
Presidenta de la Sección de Música